

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren gomendioak
(2011ko ekainaren 2ko bertsioa)

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren I. Txostenean bildutako ondorioetan oinarrituz, Kontseilu honek honako gomendio hauek planteatu nahi ditu:

a) Gizarte Zerbitzuen Sistema finkatzea

- 1) *Gizarte Zerbitzuen garapenean aurrera egiteari dagokionez profesionalen eta herritarren eskariari erantzun positiboa ematea*

Txosten honetan jasotako datuek agerian uzten dutenez, EAEko herritarren eta sektoreko profesionalen gehiengo zabal bat Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren garapenean aurrera egiten jarraitzearen aldekoa da. Ildo horretatik, txostenean bertan zera nabarmentzen da, EAEko herritarren % 75 oso ados edo nahiko ados dagoela Gizarte Zerbitzuetako gastua areagotzen jarraitu behar dela adierazten duen ideiarekin. Bestalde, profesionalen % 90ek adostasun-maila berbera adierazi du ideia horri dagokionez.

Herritarren eskaria eta profesionalen iritzia zein den eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak bere erantzukizunei jarraiki erantzun behar dien premien bolumena nolakoa den kontuan hartuz, Kontseilu honen lehen gomendia eskari horri modu positiboan erantzutea da, eta honenbestez, gizarte-zerbitzuen sistema osatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitzea, duela hainbat urtez geroztik egin den bezala. Aurrerabide horren ondorioz, sistemak arreta emateko duen gaitasuna areagotu beharko da, eta baita haren finantzaketara bideraturiko gastu publikoa ere; alabaina, gastuaren eraginkortasuna handiagoa izatea eta baliabideen optimizazioa areagotzea faboratuko duten hobekuntza tekniko eta antolamendu-hobekuntzen sostengua ere ezinbestekoa izango da. Nolanahi ere, ezein erakunde edo agentek bakarrik konpondu ezin duen gizarte-erronka bati aurre egin beharko diogu: gizarte-inbertsioan lortu nahi den areagotze hori aurrera eramateko modu

zehatzak nahikotasunez, iraunkortasunez, eraginkortasunez eta gizarte-onespenez adosteko eta sustatzeko erronkari, hain zuzen ere.

2) *Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arau-garapenari erritmo bizkorragoa ezartzea*

Txosten hau idazteko kontsultatutako profesional askoren artean nabaria da Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arau-garapenaren prozesuarekin lotutako ezinegon-sentsazioa; zalantzarik gabe, esparru horretan inplikaturiko agente guztiengan itxaropen handiak sortu zituen arestian adierazitako Legeak. Haatik, egoera ekonomiko korapilatsuak, eskumen-egitura bereziak edota heldu beharreko gaien konplexutasunak aipatutako Legearen arau-garapena atzeratu dute, eta baita Lege horrek biltzen zituen zenbait xedapenen benetako aplikazioa ere.

Lege horren garapenean eta aplikazioan aurrera egiteko lanean erakundeek eta gainerako agenteek aurre egin beharreko baldintzatzaileak eta zailtasunak, kargu utzitako eginkizunaren konplexutasuna eta azken bi urteetan Lege hori garatzeko egindako ahalegin garrantzitsua aitortuta badaude ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak nabarmendu nahi du Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arau-garapenari erritmo bizkorragoa ezarri behar zaiola, oso bereziki, Lege horren espirituan eta testuan oinarrituta, haren benetako aplikazioan al bait lasterren aurrera egitea ahalbidetuko duten akordioak –erakunde artekoak– lortzea beharrezkoa izateari dagokionez. Zehazki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko kideek oso modu positiboan balioesten dute erakunde artean (eta oro har, agenteen arteko elkarrizketa) hainbat elementu zehaztearen inguruan egindako lana, besteak beste, Gizarte Zerbitzuen Zorroa eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa eta Mapa zehaztekoa; halaber, Sistemaren garapenerako funtsezkoak diren tresna horien edukia ahalik eta lasterren adosteko eskatzen diete erakundeei.

Legearen garapenaren erritmoan eragina duen baldintzatzaile nagusia, edonola ere, garapen horretarako behar den finantzaketa-aseguramendurik eza dugu. Guztion artean konpondu beharreko arazoa da hori. Erakunde errudunik ez dago, ezta gainerakoan baino errudunagoa denik ere, guztiek jokatzeko baitute nahikoa ez izanik haratago joan ezin duela dakienaren ardurarekin. Horrenbestez, sistemaren finantzaketa eta iraunkortasuna erdiesteko xedez adostasun politiko eta soziala eta erakunde arteko nahiz agente interesdunetik adostasuna lortzeko lana da, izan ere, txosten honen gomendio nagusia. Orobat, ildo horretatik, udal-legearen inguruko akordioa ere garrantzitsua da.

3) *Gizarte Zerbitzuen ereduarekin lotutako adostasun politikoa eta instituzionala ikusaraztea eta haren garapenaren inguruko eztabaidei eustea, alderdien elkarrizketa alde batera utzita*

Txosten hau egiteko kontsultatuko pertsona askoren aburuz, Gizarte Zerbitzuen gainean sortutako polemika publiko jakin batzuen eraginez, beharbada, herritarrak edota agenteak nahasita eta motibaziorik gabe egon dira une jakin batzuetan. Horri dagokionez, eztabaidaren eta iritzikontrastearen legezkontasuna –baita desadostasunarena eta bat ez etortzearena ere– aitortuta dago, baina halere, Gizarte Zerbitzuen ereduari –12/2008 Legean irudikatutakoari– buruzko adostasun politiko eta instituzionala ikusaraztea beharrezkoa dela nabarmentzea egokitzat jotzen dugu, eta baita haren garapenaren gaineko eztabaidak alderdien eztabaida alde batera utzita gauzatzea ere. Ildo beretik, eta Euskadiko Gizarte Zerbitzuen historian beste hainbat aldiz gertatu den legez, ezinbestekotzat jotzen dugu erakunde eskudunek irismen luzeko konpromisoa har dezaten ereduaren garapen integralaren alde, bakoitzaren premia espezifikoez eta koiunturalez haratago.

4) Erakunde artean irismen luzeko akordioa lortzea, Gizarte Zerbitzuen iraunkortasun ekonomikoa eta erakunde eskudun guztien finantza-nahikotasuna bermatzea ahalbidetuko duena

Txosten hau egiten lagundu duten zenbait pertsonak zera kritikatu dute, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea 2008an onetsi zenean, Lege hori epe ertain eta luzean betearazteko behar den finantza-erantzukizunen banaketari buruzko aurretiko akordiorik ez zela lortu. Bestalde, txosten hau egiten lagundu duten profesionalen gehiengo zabalak aditzera eman du ereduaren iraunkortasun ekonomikoa eta esparru horretan eskumenak dituzten erakunde guztien nahikotasun ekonomikoa bermatzea oso garrantzitsua dela. Horri dagokionez, komeni da gogoraraztea EAEko biztanleriaren % 60 baino gehiago zerga-presioa gehitzearen aldekoa da, betiere presio horrek gizarte-zerbitzuen kalitatea eta estaldura hobetzen laguntzen badu; bestalde, kontsultatutako profesionalen bi herenen aburuz, ezinbestekoa da funts ekonomikoak erakundeen artean banatzeko gaur egungo modua aldatzea eta gizarte-zerbitzuen alorrean eskumen gehiago hartzen dituzten erakundeak baliabide gehiagoz hornitzea. Horretaz gain, garrantzitsua da nabarmentzea gastuari eusteko neurriei dagokienez, baliabideak eskuratzean edota erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa areagotzean hautakortasun handiagoa finkatzera bideratutako halako neurriak ezartzearen aldekoak direla herritarrak zein profesionalak.

Sistemaren finantzaketara argitzeko azkenean hartuko den erabakia edozein izanik ere, eta era berean, kontuan hartuz gastuari dagokionez eraginkortasun-maila handiagoak lortzeko joera duten neurriak hartu behar direla, sistema osoak eta hura osatzen duten administrazio-maila bakoitzak beren erantzukizun eta eskumenei aurre egiteko behar dituzten baliabide ekonomikoak eduki ditzaten ahalbidetuko duten akordioak lortzea ezinbestekoa da, 12/2008 Legearen hirugarren Xedapen Iragankorrean ezarritako ildo beretik.

5) *Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoarekin loturiko alderdiak erregulatzea*

Txostenean bildutako datuei jarraiki, ezin da baieztatu erabiltzaileek jasotako zerbitzuen finantzaketan duten partaidetza ekonomikoari dagokionez aho batezko iritzi bakar bat duenik EAEko biztanleriak. Edonola ere, gai horren gaineko indarreko legediak –Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak nahiz Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legeak– alait lasterren garatu behar den esparru orokor bat ezartzen du.

Erabiltzaileen partaidetza ekonomikorako erregimen hori zehazteko, oinarrizko honako bi irizpide hauek errespetatzea komenigarria litzateke: batetik, zerbitzu desberdinetako partaidetza ekonomikorako ezarritako erregimenak baliabide-maila jakin bat duten pertsonen ez oztopatzea edo geldiaraztea, praktikan, zerbitzu horiek eskuratzea, horrelako pertsonentzat, zenbait kasutan, zaintza kontratatzerakoan ezkutuko ekonomiara jotzea, lorgarriagoa ez ezik, nahigarriagoa ere badelako, duen malgutasuna dela-eta; bestetik, kostu osagarrien (ostatua, elikadura, garraioa, arreta, eta abar) eta zaintza-gastuen finantzaketa modu egokian jasoko duen sistema bat ezartzeko joera izatea arian-arian, zentro mota, zerbitzu mota eta arreta emandako biztanleria mota desberdinak kontuan hartuz.

b) Krisialdi ekonomikoari Gizarte Zerbitzuen garapenaren bitartez aurre egitea

6) *Eusko Jaurlaritzak enplegu-politika aktiboak bere gain hartzeak eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketa Lanbideri eskualdatzeak dakartzaten abantailak laguntza horien jasotzaileen gizarteratze-prozesuak sustatzeko aprobetxatzea*

Txosten honen idazketan parte hartu duten profesional askorentzat, Eusko Jaurlaritzak enplegu-politika aktiboak bere gain hartzeak eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketa Lanbideri hemendik gutxira eskualdatzeak aukera ezin hobea eskaintzen dute Gizarte Zerbitzuak hobetzeari, gizarteratze aktiborako politikak hartzeari eta azken batean, horrelako prestazioak jasotzen dituzten pertsonen egoera hobetzeari begira. Zalantzarik gabe, prestazio ekonomikoak jasotzea enplegua bilatzeko prozesuekin hein handiagoan lotzea ahalbidetuko du arestian adierazitako aldaketak, eta horretaz gain, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ezinbesteko berbideratzea gauzatzen lagunduko du, laguntza indibidualean eta pertsonen eta familien premiei aurre egitean oinarritutako lan-formuletarako berbideratzea, hain zuzen ere.

Oro har, datozen hilabeteetarako aurreikusita dauden eraldaketak positibotzat jotzen ditugu, eta hori horrela izanik, ezarriko den eredu berriak irizpide jakin batzuk errespetatu beharko dituela nabarmendu behar dugu: batetik, helburu eta lan-formula jakin batzuk erdiesteko jomuga izango duen eredu baten aldeko apustua egitea, zehazki, prestazioen onuraduna bere laneratzeari dagokionez erantzule egiteaz gain, gizarte osoa gizarteratzea faboratzen duten lan-merkatua eta lan-harremanak sustatzeko premiari dagokionez erantzule egingo duen eredu baten aldeko apustua, hain zuzen ere; bestetik, Gizarte Zerbitzuen eta Enplegu Zerbitzuen arteko koordinazio sakona eta eraginkorra ahalbidetuko duten mekanismoak, eta zehazkiago, deribazio-protokoloak antolatzeako premia, diru-sarrerak bermatzeko prestazioen jasotzaile askok laneratzeaz aparteko hainbat zailtasuni aurre egin behar dietela egiaztatu ondoren.

7) *Gizarte Zerbitzuek enplegua sortzeko duten indarra ahalik eta gehien garatzea eta sektorean diharduten pertsona guztien lan-baldintzak hobetzeko eginkizunean aurrera egitea*

Gizarte Zerbitzuen eta Enplegu Zerbitzuen baterako ekintzak, zalantzarik gabe, gaur egun diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituzten pertsona ugariaren artean enplegua eta laneratzea aktibatzeako egitekoan lagun dezake. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak lehen mailako eginkizuna eduki behar du krisialdi ekonomikoaren ondorioei erantzuterakoan, enplegua sortzeko duen indarra ahalik eta gehien garatuz eta sektorean diharduten pertsona guztien lan-baldintzak hobetuz.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren etorkizuneko dimentsioari buruz egindako etorkizun-azterlanek agerian uzten dute zuzeneko arretako langile gehiago beharko direla, eta zehazki, erdi-mailako prestakuntza duten langileen eta erdi-/behe-mailako prestakuntza dutenen eskaria bereziki handia izango dela. Hori horrela izanik, azterlan ugari lotzen dute Gizarte Zerbitzuen garapena hazkunde ekonomikoarekin eta pobrezia-aren murrizketarekin, batetik, emakumeentzako lanpostuen eskaria handiagotzen dutelako (eta horrek eragin handia du haurren pobrezia-tasetan, zalantzarik gabe), eta bestetik, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko aukera gehiago ahalbidetzen dituztelako, arreta informala gaineko presioa txikiagotzen dutela kontuan hartuz.

Horrenbestez, orain sistemak aurre egin beharreko erronka zera da, batetik, langile-zuzkidura nahikoaren aldeko benetako apustua egingo duen zerbitzu-sare bat garatzea, eta bestetik, esparru horretan kalitatezko lanpostuak sortzea, kontratatutako pertsonen okupazioa edo erakunde kontratatzaileen titulartasuna edozein izanik ere. Orobat, sistemaren funtsezko beste erronka bat dugu esparru horretan diharduten pertsonen prestakuntza eta prestakuntza hobetzea, eta oso bereziki, ezkutuko ekonomian edo ekonomia informalean lan egiten dutenez, gaur egun Euskadin

adineko pertsonen, mendekoen edota desgaituen arretan laguntzen duten milaka pertsonaren egoera erregulatzea.

Laburbilduz, funtsezkoa da Gizarte Zerbitzuak garatzeko estrategia enplegu egonkorra, produktiboa, iraunkorra eta kalitatezkoa sortzeko estrategiarekin lotzea (eta baita gizarte-politiken alorreko beste hainbat helbururekin ere, hala nola haurren pobrezia murriztearekin), osagarriak ez ezik, elkarren mendekoak baitira bi estrategia mota horiek.

8) *Gizarte Zerbitzuetan I+Gko jardueren sustapenean aurrera egitea, efikazia- eta eraginkortasun-maila handiagoak lortzeko xedez*

Gizarte Zerbitzuetan enplegua sortzeko gaitasuna ez dago zuzeneko arretako lanpostuetara mugatuta. Beste zenbait ekoizpen-sektorek enplegua sortzeko duten gaitasuna ere nabarmendu beharrekoa da, esate baterako, autonomia pertsonalean laguntzeko teknologiena; izan ere, Gizarte Zerbitzuen esparruan I+Gko estrategiak aplikatzearen aldeko apustu irmoaren bitartez baino ezin dira erabat garatu sektore horiek. Edozelan ere, sektore horren garrantzia ez datza soil-soilik laguntza-produktuetan eta -teknologietan, zerbitzuak antolatzeke, emateke eta kudeatzeko eredu berritzaileen –sistemaren helburuak ahalik eta eraginkortasun handienez lortzea ahalbidetuko dutenen– garapenera ere hedatu beharko bailitzateke.

Horregatik guztiagatik, ikerketarekin eta garapenarekin lotutako jarduerak nahiz jakintzaren kudeaketarekin erlazionaturiko jarduera guztiak sustatzen jarraitu behar dira Gizarte Zerbitzuen esparruan, batik bat, administrazio publikoetatik, baina irabazi asmoa duten erakunde pribatuetatik eta irabazi-asmorik gabekoetatik ere bai, Unibertsitateak bazter utzi gabe.

c) Zerbitzuak eta prestazioak hobetzea

9) *Prestazio ekonomikoak eskuratzeko eta jasotzeko baldintzak homogeneizatzea lurralde desberdinetan, eta orobat, prestazio ekonomikoak soilik baldintza egokietan eta aukerarik komenigarriena direnean emango direla bermatzea ahalbidetuko duen estrategia bat sortzea*

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren txostenak agerian uzten du azken urteotan prestazio ekonomikoak zein heinetan ari diren protagonismo handiagoa hartzen EAEko Gizarte Zerbitzuen baliabide-mapan, neurri batean, krisialdi ekonomikoaren eragina dela-eta, baina baita Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legearen aplikazioaren ondorioz ere. Zalantzarik gabe, prestazio ekonomikoen hedapenak abantaila garrantzitsuak dakartza, erabiltzaileen eskariari eta benetako premiari erantzuten dielako, eta gainera,

prestazio horiek autonomia pertsonal handiagoa eta zaintza-lanen antolaketan aukeratzeko gaitasun handiagoa izateko aukera ematen dietelako jasotzen dituzten pertsoneri.

Alabaina, hainbat erakundek nolabaiteko kezka nabarmendu dute zuzeneko arretarako zerbitzuak jasotzearen eta prestazio ekonomikoen artean geroz eta desoreka handiagoa egoteari dagokionez, eta kezka hori are zentzukoagoa da zerbitzu horiek enplegua sortzeko eta erabiltzaileen aurreko egoera benetan hobetzeko nahiz benetan emandako laguntza kontrolatzeko duten gaitasuna kontuan hartuz gero. Bestalde, garrantzitsua da gogoraraztea herritar gehienek, gai horri buruz galdetzen zaienean, zuzeneko arretako zerbitzuak sustatzeari lehentasuna eman behar ziola deritzotela, prestazio ekonomikoak jasotzearen aurretik. Azkenik, beste zerbaite ere nabarmendu behar da, zehazki, honako hau: prestazioen kalitateari dagokionez oraindik ere aldeak daudela (estaldurari eta zenbatekoei gagozkiela) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde desberdinetan, eta gainera, Autonomiarako eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeko Sistema gure erkidegoan duela gutxi aplikatu izanagatik desberdintasun horiek areagotzen ari direla (hori baino lehen, mendetasun-egoeran dauden pertsoneri arreta emateko beste zenbait esparrutan ere bazeuden aipatutako desberdintasunak).

Horregatik guztiagatik, prestazio ekonomikoak eskuratzeko eta jasotzeko baldintzak gure Erkidegoko Lurralde desberdinetan homogeneizatzea ahalbidetuko duten neurriak ezartzea ezinbesteko bilakatu da, eta baita zerbitzu pertsonalak bultzatzen jarraitzea ere, prestazio ekonomikoetara jotzeko aukera murrizt dadin.

10) Udalen eta lehen mailako arretaren ekintza-gaitasuna indartzea

Era berean, lehen mailako arretarako zerbitzuen garapenean aurrera egitea ahalbidetuko duten neurriak abiaraztea arestian adierazitakoa bezain ezinbestekoa dela dirudi Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen helburuak eta espiritua betetzeko. Txostenean bilduriko datuei jarraiki, EAEko Udalek gaur egunean eginkizun erlatiboki txikia dute oraindik ere (gastuari edota arreta emandako biztanleriari dagokienez) Gizarte Zerbitzuen sistema osoaren barruan; halaber, prestazio ekonomikoek eta bigarren mailako arretako prestazioek lehen mailakoek baino garapen konparatiboki handiagoa izan dute. Horri dagokionez, funtsezkoa da EAEko Gizarte Zerbitzuen “udal-izaera areagotzeko” eta lehen mailako arretarako zerbitzuak indartzeko prozesuan aurrerakada erabakigarria ahalbidetuko duten neurriak hartzea (erakunde arteko finantzaketaren, erregulazioaren, plangintzaren eta koordinazioaren esparruan).

11) *Etxez etxeko arretarako zerbitzua eta pertsoneri etxean eta erkidegoan geratzen lagun diezaieketen bestelako zerbitzuak sendotzea, zerbitzuaren estaldurari, intentsitateari eta orientazioari dagokionez nahiz erabiltzaileen partaidetza ekonomikoaren ikuspegitik*

Aurreko gomendioarekin hertsiki lotuta, etxez etxeko arretarako zerbitzua eta pertsoneri etxean eta erkidegoan geratzen lagun diezaieketen bestelako zerbitzuak modu berezian sendotu behar direla agerian uztea ere komenigarria da, zerbitzuaren estaldurari, intentsitateari eta orientazioari dagokionez nahiz erabiltzaileen partaidetza ekonomikoaren ikuspegitik. Arreta dibertsifikatzea, eta honenbestez, bestelako formuletara (gaueko edo asteburuetako arreta edota etxez etxe elikatze zerbitzuak ematea) irekitzea ahalbidetuko duten antolakuntza-ereduak praktikan jartzea ere oso garrantzitsua da.

Horri gagozkiola, beharbada komenigarria litzateke honako aukera hauei buruz hausnartzea: batetik, zerbitzuarekin lotutako prestazioa arestian adierazitako zerbitzuetara zabaltzea, eta bestetik, erabiltzaileen partaidetza ekonomikoari gaur egun aplikatzen zaizkion mugak murriztea; prestazio horren bitartez arreta pertsonalerako eta etxez etxeko arretarako zerbitzuak hartzea ahalbidetuko lieke horrek guztiak mendetasun-egoeran dauden pertsoneri. Horrela, erakundeek nahiz zaintzaile profesional autonomoek emango lituzkete zerbitzu horiek; zaintzaile profesional autonomoek behar bezalako prestakuntza, egiaztapena eta homologazioa izan beharko lituzkete, eta horrek, zalantzarik gabe, eta 7. gomendioan agertutakoaren ildo beretik, gaur egun ekonomia irregularraren esparruan laguntza pertsonaleko zerbitzuak ematen dituzten pertsona asko erregularizatzea ahalbidetuko luke, eta baita pertsona horiek prestakuntza izatea ere.

Horretarako, pertsona bakoitzak behar dituen laguntzen intentsitatea zehazteaz gain, prestazioaren zenbatekoa intentsitate horren arabera modulatu beharko litzateke aurretiaz. Aldaketa horretarako, ezinbestekoa litzateke etxez etxeko arretarako zerbitzu publikoan eginkizun-aldaketa bat sartzea; horrela, ahal bada, familia-ingurune zaintzaileei laguntzeko xedea duten prestazio ekonomikoak nahiz zerbitzuarekin lotutakoak jasotzen dituzten mendeko pertsoneri emandako arretari jarraipena eta aldi behingo ikuskapena egiteko lana eman beharko litzaioke zerbitzu horri. Zalantzarik gabe, aipatutako aldaketak etxez etxeko laguntzako zerbitzu publikoaren izaera ere modu erabakigarrian aldatzea dakar; horrela, prestakuntza-maila handiagoko zerbitzu bihurtuko litzateke, eta honenbestez, bestelako profil profesionalek eduki beharko lituzkete ikuskapen-egitekoak, hala nola gizarte-langileek, familia-hezitzaileek, gizarte-hezitzaileek eta abarrek.

Horren osagarri gisa, etxean geratzea sustatu eta beharrezkoak ez diren egoitzagatiko diru-sarrerak saihestu nahi badira, funtsezkoa da barneko zein kanpoko irisgarritasuna bermatzeko xedez etxebizitzak egokitzeko neurriak orokorrean aplikatzea.

12) Laguntza pertsonalaren eta bizitza independenterako programen eginkizuna indartzea

Adierazitakoen antzeko arrazoiengatik, laguntzaile pertsonalaren figura ahalik eta gehien garatu behar dela ere aipatu behar da, Autonomiarako eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeko Sistemako katalogoan bildutako prestazioari nahiz modu orokorragoan, bizitza independentearen filosofian oinarritutako programei dagokienez. Gure inguruko beste hainbat herrialdek izandako esperientziek agerian utzi dute figura hori aproposa dela, desgaituak gizarteratzeko eskaintzen dituen aukerei zein desgaituei arreta emateko sektorean kalitatezko enplegua sortzeari dagokienez.

13) Arreta-sare informalean emandako laguntza areagotzea

Aurreko gomendioetan azaldutakoaren ildo beretik, adierazitako guztia bezain beharrezkoa da zaintzaileei laguntza sakon eta zabalagoa ematea ahalbidetuko duten neurriak sustatzea, batetik, zaintzaileei zuzendutako prestazio ekonomikoak eta/edo zerbitzuak garatuz, eta bestetik, premiak ebaluatzeko, lasaitasuna emateko, prestakuntza jasotzeko, aholkularitza izateko eta laguntza psikologikoa eskaintzeko programak modu irmoan garatuz.

14) Prestazio ekonomikoak emateaz haraindiko gizarteratze-politikak garatzea Gizarte Zerbitzuetan, eta horretaz gain, etxerik gabeko pertsonen arreta emateko zerbitzuen kalitatea, zuzkidura eta estaldura hobetzea, bereziki, biztanleria horri bideratutako exijentzia-maila txikiko zerbitzuen kalitatea, zuzkidura eta estaldura.

6. Gomendioan aditzera emandakoaren ildo beretik, gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen eredu jakin baten eraketan aurrera egitea ere ezinbestekoa da; eredu horrek honako ezaugarri hauek izan beharko lituzke: lehenik eta behin, prestazio ekonomikoak emateaz haraindikoa beharko luke, eta bigarrenik, beharrezko gizarte-babeserako eta -laguntzarako bitarteko zerbitzuak –pertsona bakoitzari bere gizarteratze-prozesuan eman beharrekoak– eskaini beharko lituzke.

Ildo horretatik, eta txosten honen idazketan parte hartu duten profesionalek planteaturiko gogoetei jarraiki, derrigorrean nabarmendu behar dugu etxerik gabeko pertsonen zuzenduriko exijentzia-maila altuko, ertaineko eta baxuko arretarako zerbitzuak sendotu behar direla. Horrelako zerbitzuen kalitatea eta zuzkidura Espainia osoan baino hobea da Euskal Autonomia Erkidegoan, baina haatik, honako hauek lortzea beharrezkoa da oraindik ere: lehenik eta behin, egoitza- eta ostatu-baliabideen hobekuntzan eta dibertsifikazioan aurrera egitea, bigarrenik, gizarteratze-zentroen zuzkidura

lurralde guztietara zabaltzea, hirugarrenik, larrialdi-zerbitzuen eginkizunak hedatzea eta argitzea, eta azkenik, osasun-arretaren sarearekin lankidetzan aritzeko protokoloak hobetzea, batez ere, drogamendetasunen, jokabide-arazoan eta patologia mentalen tratamenduari dagokionez.

15) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ekintza-gaitasuna hobetzea eta esku hartzeko eredu komun bat ezartzea

Azkenik, 12/2008 Legean ezarritako esku-hartze eredia gauzatzeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek gaur egun duten funtsezko eginkizuna, eta batik bat, etorkizunean izango dutena nabarmendu behar da. Horri gagozkiola, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Egoerari buruz Arartekoak duela gutxi emandako Txosten Berezian bildutako gomendioen ildo beretik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erdian kokatu behar direla nabarmendu behar da, sare hori beharrezko baliabideez hornituz eta haren garapen egokiari gehieneko lehentasuna emanez, Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Zerbitzuetan eskumenak dituzten erakunde guztien aldetik.

Arestian aipatutako txostenean aditzera ematen den bezala, honako hauek ere behar-beharrezkoak dira: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen finantzaketa-eredu bat diseinatzea, adostea eta ezartzea, zerbitzu horiek erregulatzeko arau espezifiko bat sortzea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langile-zuzkidura gehitzea eta dibertsifikatzea, eta azkenik, sistemaren egituratze handiagoa ahalbidetzeaz gain prestazioen esleipenean herritar guztiei berdintasuna bermatuko dien esku hartzeko eredu komun bat ezartzea.

Esku hartzeko eredu horrek, kontuan hartuz planteaturiko neurrietako zenbaitzuek –esaterako, araudi espezifiko baten garapenak– hura sortzeko lana erraztuko luketela, eginkizunen, programen, prozeduren, eta laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen mailako arretaren berrantolaketaren eta gainerako arreta-mailekiko koordinazioaren gaineko funtsezko jarraibideak ezarri beharko lituzke. Esku hartzeko eredu komun horren esparruan, unitateen barruan gutxienez informazio- eta orientazio-eginkizuna, harrera- eta diagnosi-eginkizuna eta esku hartzeko eginkizuna bereiztea ahalbidetuko luketen espezializazio-eskema partzialak sartzea gomendagarria litzateke. Era berean, lan-kargak eta profil profesionalak ezartzeaz gain, administrazio-lanak sinplifikatzea eta/edo berresleitzea ahalbidetzen duten neurriak antolatu beharko lituzke esku hartzeko eredu horrek. Esku hartzeko eredu komun horren ezarpenak, era berean, Euskal Autonomia Erkidego osoan herritarrei emandako arreta berdintzen lagundu behar du, premiak diagnostikatzeko eta balioesteko mekanismoei nahiz esku hartzeko programa indibidualak gauzatzeari dagokionez.

d) Barneko eta bestelako sistemekiko koordinazioa

16) Gizarte- eta osasun-alarreko koordinazioa eta gizarte- eta hezkuntza-alarrekoa hobetzea ahalbidetuko duten proiektu pilotuak garatzea tokiko esparruan

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren txostenean jasotako datuek agerian utzi dute sektoreko profesionalak bereziki kezkatuta daudela egunetik egunera sortzen diren koordinazio-arazoekin nahiz benetan sistema gisa kalifika daitekeen sare bat antolatzerakoan horiek izan dezaketen eraginarekin. Koordinazio-kanalak erakunde-mailetan eta koordinazio- eta elkarrizketa-kanalak kasu edota pertsona zehatzetan hobetu behar direla alde batera utzita, betiere sistemaren erregulazioari eta plangintzari dagokienez, lurralde jakin batzuetan erakunde arteko koordinazioan oinarritutako arreta-ereduak abiaraz ditzaketen proiektu pilotuen garapenean aurrera egitea ere ezinbestekoa da, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekiko, osasun-sistemarekiko eta hezkuntza-sistemarekiko lankidetzari arreta berezia jarriz.

Hurbiltasun geografikotik agente guztien ahaleginak konbinatuko lituzketen eta baliabideen baterako plangintza zein horien erabilera malgu eta integratuagoa ahalbidetuko luketen komunitate-arretarako ereduak aplikatzeko eta horien gainean ikertzeko, zalantzarik gabe, erabilgarriak liratekeen proiektu esperimentalak abiarazteko atea irekitzen du 12/2008 Legeak. Ildo horretatik, lehen mailako arretatik baina bigarren mailako arretaren koordinazioarekin gauzatu beharreko koordinaziorako ereduak –kasuen kudeaketa indartzean, agente desberdinen artean informazioa trukatzean eta esku hartzeko eta deribatzeke protokolo komunetan oinarrituak– bultzatzea ezinbestekoa da. Gizarte- eta osasun-alarreko arretaren gure ereduan adostasuna eta aurrerabidea sustatzen jarraitu behar dugu.

17) Gizarte Zerbitzuen gaitasuna garatzea, eta bereziki, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, komunitate-sarean inplika daitezzen

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta komunitate-arreta osoa indartzeko (testu honetan agertu da indartze hori) eta lurralde-oinarriko erakunde arteko koordinaziorako proiektuak sustatzeko, era berean, beharrezkoa izango da zerbitzu-sistemak Euskadiko herrien eta hirien komunitate-garapenean protagonismo handiagoa izateko aukerak hobetzearen aldeko apustua egitea, hainbat neurriren bitartez, besteak beste, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak arreta emandako gune geografikoetako komunitate-sarean modu irmoagoan inplikatuz, hain zuzen ere.

18) Hirugarren sektoreak esku hartzeko duen gaitasuna sustatzea

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak, era berean, gizarte-zerbitzuen esparruan eskumenak eta inplikaturiko agenteak dituzten erakunde publiko guztiei eskatu nahi die irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekintzako erakundeek esku hartzeko duten gaitasuna hobetzea ahalbidetzen duten neurriak hartzeko, zerbitzuak emateari nahiz ordeztzen dituzten pertsonen eskubideak, interesak eta aldarrikapenak defendatzeari dagokienez.

Ikuspegi horretatik, nabarmendu beharrekoa da itunaren figura erregulatzen duen araudia onetsi behar dela; horrela, inplikaturiko alderdi guztien premiak eta asmoak ez ezik, Administrazio Publikoen eta hirugarren sektoreko entitateen arteko lankidetzarako hitzarmenen sustapena bete beharko ditu araudi horrek, eta baita diru-laguntzen jarduera berrantolatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitzeko ere, laguntza-sistema hori arrazionalizatu behar dela eta Hirugarren Sektoreko entitateek egiten dituzten jardueretarako laguntza irmoa eman behar dela kontuan hartuz. Era berean, Administrazio publikoaren eta gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen artean hasitako elkarriketa zibileko esperientziak balioetsi eta sustatu nahi dira, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak herritarren ordezkari gisa, politika publikoak diseinatzeko hizketakide gisa, gizarte-sarearen dinamizatzaile gisa, zerbitzuen kudeatzaile gisa eta gizarte-berrikuntzaren agente gisa duen eginkizun garrantzitsua ikusarazten laguntzen duten esperientziak direlako.

e) Gizarte Zerbitzuek herritar guztien ongizatearen inbertsio gisa duten irudi publikoa finkatzea

19) Herritarren artean, bereziki, sektore kaltetuenetan, Gizarte Zerbitzuekin, horien kudeaketaren egokitzapenarekin eta horien ondoriozko onura-mailarekin loturiko konfiantza handiagoa, sustatzea

Txosten honetan jasotako datuek agerian uzten dutenez, oro har, herritarrek Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko iritzi positiboa dute, baina hori gorabehera, azken urteotan herritarren onarpen-mailetan nolabaiteko atzerakada gertatu dela ere nabarmendu behar da. Bestalde, txosten honetako eta beste hainbat txostenetako datuek jasotzen dutenez, herritarrek ezjakintasun-maila handia dute gizarte-zerbitzuen sistemari, horien antolakuntzari eta prestazioei dagokienez. Txostenak biltzen dituen datuen arteko kezkarrienetakoa, nolana ere, zera da, teorikoki gizarte-zerbitzuen sistematik onurarik handiena atera dezaketen pertsonak aldentze-maila handiagoa erakusten dutela sistema horrekin. Era berean, Gizarte Zerbitzuei eta horiek erantzundako premiei dagokienez gizarteak duen hautematearekin loturiko beste hainbat arazo ere aipa daitezke, hala nola biztanleriaren sektore bat bere auzoan gizarte-ekipamendu jakin batzuk instalatzearen aurka

dagoela, edota gizarte-zerbitzuen sistema, hain zuzen, sistema bakar eta integratu gisa hautemateko zailtasunak daudela.

Horren guztiaren eraginez, herritarrei gizarte-zerbitzuekin loturiko mezu konstruktiboa transmitituko dien komunikazio- eta sentsibilizazio-estrategiak jarri behar dituzte martxan erakunde publikoek eta inplikaturiko agenteek. Estrategia horiek gutxienez hiru elementutan oinarrituta egon beharko lukete: batetik, 12/2008 Legeak ezartzen duen legez, sareko elementu guztiak erantzukizun publikoko sistema bakar baten zati gisa identifikatzea ahalbidetuko duen nortasun-marka edo -zeinu bat sortzea, bestetik, gizarte-zerbitzuei buruzko mezu konstruktibo bat hedatzea, gizarte-zerbitzuak gizarte-kohesiorako inbertsio ekonomikoa eta soziala direlako (eta ez ohiko gastu hutsa) ideia sendotuko duen mezu bat, hain zuzen ere, eta azkenik, biztanleria honako honetan kontzientziaztea: Gizarte Zerbitzuen sistemak, arbitrariotasun orotatik aldenduz, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiek behar dituzten laguntzak eta zaintzak beren premien arabera jasotzeko duten eskubidea hezurmamitzen duela.

20) Informazio-, behaketa- eta azterketa-mekanismoen hobekuntzan aurrera egitea

Politika publikoen artean, ikerketa- eta estatistika-ahalegin handienetakoa eduki duena dugu Gizarte Zerbitzuena, zalantzarik gabe. Hain zuzen, euskal administrazio publikoek, hirugarren sektoreko entitateekin lankidetzan arituz, esparru horretan egiten den lanari jarraipena egiteko eta Euskadiko pertsonen eta familien beharrak neurtzeko hainbat tresna abiarazi ditu azken urteotan. Txosten hau edota txosten hau baino lehen Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak egindako txostenak horren adierazgarri dira.

Edozelan ere, txostenean bilduriko datuek agerian uzten dituzte Gizarte Zerbitzuen estatistika-jarraipenerako egungo sistemak dituen mugetako zenbaitzuk: atzerapenak datuak eskuratzean, zerbitzuen egungo katalogoaren eta estatistiketan jasotakoaren arteko desdoitzea, komunitatean esku hartzeko programei eta erabiltzaileen ezaugarriei buruzko datuen eskasia, eta abar. Izan ere, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak berak zailtasun horiek atzematen ditu, horiei aurre egiteko bi tresna espezifiko ezarriz: Gizarte Zerbitzuen Behatokia eta Informazio Sistema. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko kideek oso balioespen positiboa eman diete bi tresna horiek sortzeko egin diren urratsei, eta Gizarte Zerbitzuei aplikaturiko jakintza-kudeaketaren esparruan diharduten gainerako entitateekin (Eustat, Enplegu eta Gizarte Zerbitzuetako sailaren Estatistika Organo Espezifikoa, unibertsitateak, edota Hirugarren Sektoreko entitateak, besteak beste) lankidetzan bi tresna horiek al bait lasterren benetan abiaraztera presatu dute Eusko Jaurlaritzak.